

MERMELADA-HONDARRAK

Katagorria (Iñaki Irisarri Pellejero)

- Azken batean, eguneroko bizitza matematika-kontua da -esan zuen irakasleak aurren zituen neska-mutilei betaurrekoen gainetik begirada aspertua eskainiz-. Mundo honetan gehien-gehiena matematika hutsa da. Ia guztia...

Ikasleen arreta bere mailarik gorenean zegoen une horretan, goizeko bederatzoetatik zama handixkoa leporatua bazuten ere. Baina krokodiloz jositako ibaia etsita ziharkatzen duen ñu andanaren irudiak telebistan makina bat aldiz ikusita ere, sekula ez zuten bertan matematikaren arrastorik sumatu, eta xelebrea iruditzen zitzaien irakaslearen aipamena. Gardatzop erraldoi haietako batekk harrapatua izateko aukerak urritze aldera agintzen omen zien senak tropelka egiteko.

Hipermerkatuetako eskaintzen gibelean ere matematika ezkutatzen zen, Mateo irakaslearen esanean:

-Mermelada-marka bat eskaintzen jarri, eta badakite mermelada erosi behar duten hamarretik lauk marka horixe hartuko duela. Mermelada bezeroen ehunejo zenbatek erosten duen aldeaz aurretik badakitenez, zehazki zenbat pote mermelada saldu behar duten badakite, gutxi batzuk gora-behera, kar, kar, kar.

Begi-bistakoa zen gazteek ez zutela horren ongi hartu beste adibide hura. Berehala oharte zen Mateo. Beharbada lasai onartzen ahal zuten matematikak ñuen bizitza agintzen zuela. Bestelakoa zen, ordea, multzotik ezberdintzeko ahaleaginean ari ziren nerabeok haiek ere estatistikaren legeak ibalitado panpinal zirela irenstea. Hori ez. Haiek ez zuten mermelada erosten, baina asteburuetan eskaintzeako lokoreak erosten zituztenean hala nahi zutelako erosten zituzten, eta ez inongo lege baten aginduz.

-Egia esan, arestiko eskaintza horrexekin alferrik aritzen dira nirekin, aldian behin Loreak ekartzen baitit etxeko piku-mermelada. Lorez, esaiozu amari irrikan nagoela aurtengoa dastatzeko...! -bota zuen irriño saldo baten esperoan.

Ikasleei ez zien batere graziaz egin irakaslearen ateraldiak, are gutxiago Lorea izeneko neska kaskagorriari, ilea bezain gorri ageri baitzen ikaskideen begirada garratzen jomuga izanik. Baina Lorea klaseko neska ederrena zen, eta mutilek bederen erraz samar barkatzen zioten dena.

Hamabi eta erdiak jo hurren zeudela ikusita, ikasleen konplizitatea bereganatu nahian bide berri bat jorratzea erabaki zuen Mateok:

-Eta bukatzeko, hona hemen matematikaren sekretu handi bat -iribarren zabala erakutsi zien gizonak, ohi zuen harrokeria puntu higuingarri harekin-. Larunbat gauean neska batekin saiatzen bazara, ezezkoa dizu seguru, baina matematikak dio askorekin saiatuz gero aukera guztiak dituzula batek baiezkoa emateko. Tematze-kontura da. Aditu duk, Aimar? Badakik zer egin behar duan behingoz ligatzeko...!

Ikaskideen irri-algara gezi baten antzera iltzatu zen Aimarren gogoan. Oinazea sentitu zuen. Ez zen lehenbiziko aldia Mateok eskumakila gisa erabiltzen zuela gainerakoek irri ankerrei bide emateko.

Azken bolada hartan gero eta gehiago bereizten ari zen multzorik Aimar. Multzotik nabarmentzea edozein neraberen ametsa izaten da baina bide anitz egoten da horretarako, eta denetan makurrena hartua zuen Aimarrek. Ez, bera ez zen gelako tatuatuena, gogorren jotzen zuena, ezta bideo-joko onenak merkeen lortzen zituen ere. Sentsibiltate berezikoa zen Aimar, hizketan idor samarra eta arrunt bakarzalea. Gerlarien arteko poeta sentibera. Taldearendako bazka.

Mesprezu-begirada bat zuzendu zion Aimarrek Mateori, eta une batez, hezurak kraskatzeraino zanpatzen zuela irudikatu zuen. Ametsak amets, ordea. Irakaslea berrogeita bost urteko gizon sendoa eta bizkorra zen, bera hamaseiko bizargabe mehea baino ez izaki. Eta ahal izanda ere ez zuen halakorik egingen. Irakasle bat jotzeagatik eskolatik kaleratuz gero, aitzak etxean ederki berotu behar zion bizkarra, eta are okerrago -hotzikara sentitu zuen azalean barrena-, harrezkero ez zuen Maialen egunero-egunero ikusiko.

Ezin zuen mutilak hori baino jasangaitzagorik bururatu.

-Tira, ordua da; bihar segituko dugu gai honexekin -esan zuen Mateok, artean gazteen barreak entzuten zirela-. Zer daukazue goiza bukatzeko?

-Filosofia! -erantzun zuen berehalakoan neska zintzo batek.

-Uf! -hasparen egun zuen Mateok, irriño bihurri batekin batean-. Matematika bizitzaren erregaia bada, Filosofia ondorengo kea. Pitagoras ez beste horiek guztiak ke-saltzaile ederrak dituzue! -epaitu zuen azkenean ikasgelatik ateratzerakoan.

Eskolan aginduta zegoen bezala, gelako leihoak zabaldu ziren hurrengo irakaslea sartu bitartean. Udazken hondarreko haize freskoak ikasleen koadernoak harrotu zituen pixka batean. Aitzitik, Aimarrek ez zuen hura sentitu. Izerditan zegoen bera. Begiak ate aldera eramanez, haren bihotz-taupadek biziraun beharrez basoan ihesi dabilen oreinaren apatx-hotsak ziruditen.

Halako batean, Maialen sartu zen gelan, beti bezala, urrats biziak eginez.

-Kaixo neska mutilok...! Animo..., Filosofia pixka bat eta laster zarete etxean. Itxi leihoak, faborez, bestela *Pinguinok* ere bere larruzko jaka itsusi hori jantzi beharko du...! -esan zuen emakumeak, iribarre ederra agertuz.

Ahapeko irri batzuk entzun ziren baina ziztuan ito zituen *Pinguino* esaten zioten mutilaren buru-biratzeak. Eskuineko eskuaz klarion luzexka bat txikitzen zuen bitartean, aurpegi gehienak arakatu zituen mutilaren begirada zorrotzak, harik eta den-denak lainotu ziren arte. Kasu egitekoa zen Pingüino. Denek zekiten hor.

Mailaen filosofia-irakaslea izateaz gain Aimarren gelako tutorea zen. Otsagabian sortua bazen ere, lau urte emanak zituen Tafallako eskola hartan, eta ordurako guztiz laketua zen Cidacos bazterreko ordoki zabalean. Tutorea izanik, filosofia-irakaste lanetik haraxeago joaten zen neska-mutilez arduratzeko tenorean.

Esaterako, bazekien mafia moduko taldetxo bat zegoela gelan, eta susmoa zuen berak zirela gainerako sagarrak ustelarazteko arrisku handienekoak. Taldetxo haren buru zen Pingüino.

Mutila besteek uste zuten bezain managaitza ez zela erakusteko, zeregin batzuk uzten zituen haren bizkar Maialenek, gainerakoen aurrean zintzo eta isilik bete zitzan. Bestak beste, goizero biltegira jaitsi behar izaten zuen gazteak, berea baitzen ikasgelako arbelean klarionak behin ere eskas ez izateko ardura. Ikasleek zioten beldurra arintze aldera ere, noizbenka saiatzen zen emakumea haren lepotik trufa txikiak egiten. Horregatik, hain zuzen, aipatua zuen Pinguinoren jakarena gelara sartutakoan.

Arreta berezia eskatzen zion taldetxo hura alde batera utzita, beste ikasleen arteko harremanak onak ote ziren edota etxean inguru egoki batean hezita zeuden sumatzen ahalegintzen zen Maialen. Batean edo bestean huts egiten zuen ikaslerik bazen gelan, baina argi gorri guztiak piztuta zeuzkan arestiko bi baldintzek bat egiten zuten ikasle bakarraren gainean. Aimarren gainean, alegia.

Aimarren gurasoak zoriontsu izateko aukera guztiak zituen belaunaldi batekoak ziren, erreka-zuloen arteko bidexka meharretik tentuz ibiltzen jakinez gero, behinik behin. Baina batzuetan gertatzen da bide on samarretik abiatuta ere, gutxien esperoan laino itsua sartu eta galbidea hartzeko arriskua dagoela. Eta sudurretik goiti sartu zitzairen haiei lainoa, neurrian lehenbizi, eroki Aimar sortu orduko, duela hamasei urte.

Zazpi betetzeko astebeteren eskasean zendu zitzaion ama mutikoari, haren gorputz ahularen mugak azkenik lehertuta. Aita, erreka jo ondoren gora egiteko aukera alferrik galduta, alkoholaren leize-zuloetara amildu zen. Beharrik bere hezibidean aitarekin baino aitatxi-amatxiekin denbora gehiago emanda zegoela Aimar.

Halarik ere, erlojuak doi-doi estaltzen zion orban gorrixkak argi salatzen zuen zenbaterainokoa izana zen mutilaren sufrikarioa.

Asteartea zenez, tertulia hasteari ekin zion Maialenek, eta gai zenbait aipatu zuen solasbide gisa: *gure mundu idealizatuaren eta errealitatearen arteko alde onargaitza edota gizakiaren libertatea eta desioa*.

Ikasleen arteko eztabaidak zegokion denboraren erdia jana zuela, gizakia libre zela uste zutenek eskua altxa zezaten eskatu zuen Maialenek. Esku anitz nabarmendu ziren. Urriago une bat geroxeago, ezetz uste zutenek altxatzeko agindu zuenean. Aimarren jarrera ez zitzaion oharkabea itzuri emakumeari:

-Aimar, zuk zer uste duzu? -galdetu zion, irribarretsu- Batean edo bestean erantzun behar duzu.

Iruzurtxoia agerian gelditu izanaz lotsaturik, lanak eman zizkion mutilari esaldia estekatzeak, ezetzn erantzutean.

-Ezezt uste dut nik...

-Gizakia es da askea, hortaz, Eta zergatik uste duzu hori?

-Mateok esan digulako eskaintza bat erosten dugunean, adibidez, matematikoki jakin daitekeela ehuneko zenbatek erosi behar dugun..., beraz...

-Beraz....?

-Eroslea txotxongilo bat dela, badakaite-eta zer egin behar duen...

Maialenek hartu zuen hitza orduan, eta Aimarren begirada galdu gabe, luze erantzun zion. Ongi zekien oso mutil sentibera zela, eta kontu handiz josi behar zuela erantzuna. Emeki azaldu zion, ehun pertsonako talde baten barnean zenbatek erosten duen produktu bat asma dezakeela, beharbada, matematikak. Baina, halaber, gizabanako bakar bat hartuta, alfer-alferrik aritzen dela matematika haren jokamoldea asmatu nahian.

-Estatistikak omen dio, Aimar, gaueko hamaiketan nerabeen ehuneko hirurogei ordenagailuaren aurrean dagoela. Baina gaur, gaueko hamaiketan, zuk zerorrek zer egin behar duzun matematikak ez du jakiterik... Ez matematikak ez beste inork. Aigan zuk uste baino askeago zara, mutil.

Alde ederra iruditu zitzaion Aimarri Mateoren eta Maialenen hitzen artekoa. Gizonarenak bihotz ameslarien hegalk mozteko sortuak ziren bitartean, gogoia ebatsia zion Maialenenak haize bolada fresko bat bilakatzen ziren, bihotzen hegaldiari mesede egiteko propio ekarria zirudiena.

Matematikak nekez asmatu behar zuen gaueko hamaiketan Maialenekin amesten izanen zela, esna edo ez, Aimar.

Argi-hastean, Tafalla hiria ugalde bazterretik hedatutako ganduaren artean hasi zen eguneroko dantzan. Hotz zegoen eguna.

Ohi bezala, gosalduta gabe abiatu zen Aimar eskolara, aita oraino ohatzean zegoela. Aitaren zurrunga nekagarri haiek ateraino lagundu zuten mutila. Eguerdi aldera jaikitzen zen aita, gasolindegian arratsaldeko txandan aritzen baitzen beti. Aste-hondarretan ere, bazkalorduetan taberna-zulo batzuk garbitzen zituen barrena pixkana-pixkana usteltzen zion pozoiaren truke. Poliki itxi zuen Aimarreak atea. Gero eskularruak jantzi eta lasterka hasi zen eskaileretatik behera.

Beste behin ere, eskolako patiora sartzerakoan, muzin egin zion Pinguinoren ohiko eskaintzari. Kasik egunero entzuten zuen erretolika hura bera:

"Kapsula gorriak espezialak dituk, Aimar. Kubatara bakar bat bota eta ikusiko... Probatu...!". Etseko hondamendia larrituk sufrituta, ordea, guztiz gaitzesten zituen Aimarrek alkohola, belarrak eta gainerako kolokagarri haiek guztiak. Ez zituen behar bizitzaren muinaz gozatzeko. Bizitza noiznahi itzal daitekeen argipindar bat baizik ez dela ederki ikasita zegoen bera.

Aimarren atzetik Loreak sartu behar zuen, eskuan zeraman poltsari erreparatuta, Pinguinok harroxko geldiarazi zuenean:

-Eguno on Lorea, horrek pisu handikoa zirudin. Utzi laguntzen...

Eskua poltsan sartu eta pote bat mermelada atera zuen Pinguinok, pote aski andia. Ireki eta hatza mermeladan paseatu eta gero, ezpainetara eraman eta dastatu egin zuen, modu nahiko lizunean.

-Mmmmm..., amak egindako mermelada goxoa irakaslearendako... - potea itzuli zion- Aurki hankartea eskainiko dion, urdanga halakoa!

Barre anker batzuk lehertu ziren inguruan. Aimarrek Pinguinori zerbait erantzuteko bira-keinua egin zuenean, Lorearen esku epelak ezpainak itxiarazi zizkion, bere begien dirdirak mutilari faborez bere hartan gelditzeko erregu egiten ziola.

-Arazoren bat?-galdegin zion guztiz hanpatua Pinguinok Aimarri.

Deus esateko aukera eman gabe, Loreak Pinguinorengandik lekutu zuen Aimar, hain zuzen ere, patioko erlojuak ikasgeletara joateko ordua zela salatu zuen une berean.

Atsedenaldiaren aurreko orduan -hamarretan- Mateo sartu zen ikasgelan. Ohitura zuenez, bizpahiru matematika-liburu zekartzan besapean, klasean bederen sekula erabiltzen ez zituenak. Irakaslearen mahaiara inguratuta, Loreak ekarritako mermelada aurkitu zuen:

-Ooooh, zer daukagun hemen...! Mila esker, Lorea, biharko gosarian berean dastatuko dut. Eman musu handi bat amari nire partez... Oi ama! Mundu honetan ez dago ama bat bezalakoriz!

Mateoren hitzek min egin zioten Aimarri. Mutilaren zirotxarrerako, amatasunaren inguruko mintzaldi latz baten hasierakoak baizik ez ziren-

-Zer ginateke gu ama gabe! Amarik gabeko mutila haren tokia hartuko duen emakune heldu batekin maitemintzen da beti. Natura jakuntsua da gero!

Odola borboka nabaritu zuen Aimarrek. Kukuak makur jotako eguna irakasle nazkante hura ezagutu zuena! Kaskarin numerozale hark lau lege merkerekin esplikatzeko zuen unibertso guztia!

Aimarren ustez Mateoren labezomorro-burmuina erabat ezgai zen mundiko xarma esplikagaitzea bereganatzeko. Bere Maialenekiko sentimenduen berri jakin gabe, noski, baina di-da batean argi eta garbi azaldua zuen zergatik zegoen berarekin maitemindurik. Amak utzitako hutsunea betetzeko. Horrela, kategorikoki. Zein izan hala zelako, inolako zergatiren beharrik gabe. Irakasle txotxolo hura -pentsatu zuen Aimarrek- Iguazuko ur-jauzietara joan eta H₂O partikula-kopuru ezjakin batek Grabitatearen Legea betetzen ikusten zuela esateko gauza zen.

Irakasle burumotz alaena...! Egunen batean erakutsi beharko zion Aimarrek bihotzik gabeko *androide* hari den-dena diseinatzeko joera hura ez zela batere egokia eta askotan gauzak ez direla diruditen bezain sinpleak esplikazioren bat bilatzeko orduan.

Hamaiketan puntu-puntuan tarrapataka eta oihuka abiatu ziren patiora ikasle guztiak. Aimar gelan gelditu zen sagar bat zirutzen zuen bitartean, tropela joan eta gero lasaixeago jaisteko asmoz. Patioko talde-kirolak gustuko ez zituenez, ez zuen inolako presarik bertara joateko.

Berehala, bakar-bakarrik gelditu zen gelan.

Belatza saguaren gainera nola, halaxe etorri zitzaion burura ideia bihurri bat, Mateok irakasle-mahaiaren gainean mermelada ahanzia zuela ohartu zenean. Segundo batzuk eman zituen ideiaren hariak kontu handiz lotzeko gogoetan.

Ez bat eta ez bi, eskularriak jantzi eta Pinguinoren larruzko jaka beltzera inguratu zen. Sakelen artean arakatu eta luze gabe aurkitu zituen kolore guztietako kapsulak eta pilulak. Bingo! Pinguino ez zen ausartzen eskolako patioan droga-salmentan aritzera. Eskolara sartu aitzin edota bertatik ateratakoan egiten zuen beti, irakasle begiluzeen gordean.

Hainbestetan entzundako hitz haiek gogoratzeko ahalegina egin zuen: "*Kapsula gorriak espezialak dituk, Aimar. Kubatara bakar bat bota eta ikusiko...*".

Gorri haietako mordo bat hartuta ate ondora hurbildu zen, inguruan inor ez zebilela ziurtatzeko. Gero, eta betiere eskularruak kendu gabe, potea ireki eta kapsulen barneko hautsa bota zuen bertan, erabat hustu ziren arte.

Iribarre maltzur bat laxatu zitzaion sustantzia hura mermeladarekin behar bezala nahasteko Pinguinoren boligrafoa hartzea otu zitzaionean. Nahasitakoan ez zuen boligrafoa erabat garbitu. Hustutako kapsula gorriak desegin eta zaborrontzira bota zuen.

Ez zekien oso ongi zer gertatu behar zuen. Mermelada gosalduta eta gero akaso erabat kolokatuta agertu behar zuen Mateok eskolan, edo beharbada, halako pozoia soberako neurrian hartuta gizona betiko ergeltzeko ere arriskua bazegoen.

Nolanahi ere, inor ikerketaren bat egin nahi bazuen, mermeladan aise aurkitzeko moduan egonen zen sustantzia hura. Xeheki ikertzen segituz gero, Pinguinoren hatz-markak topatuko zituen mermelada-potean. Eta honen jakaren poltsikoetan, mermeladan agertutako sustantzia huraxe bera ete besteren bat. Ikerlaria benetan fina izanez gero, Pinguinoren boligrafoan aurkituko zuen teoria guztia beribilduko zion piku-mermeladaren arrastoa *"Hiretako Mateo, hona hemen disezio perfektu baten hanka-sartzea..."-pentsatu zuen bere artean.*

Potea itxi eta berriz ere poltsan sartu zuenean, pauso-hots motelak entzun zituen korridorean barrena. Larri ibili zen azken lerroko mahaien artean eskutatzeko. Han, belauniko eta zelatan, arnas-hartzea kasik itzaltzeraino apaldu zuen Mateo ikasgelan sartzen ikusi zuenean. Honek, Aimarren presentzia sumatu gabe, ahaztutako poltsa hartu eta etorri bezala alde egin zuen.

Une hartantxe, egindako barrabaskeriak atzera bueltarik ez duenean dakarren zapore mingotsa ezagutu zuen Aimarrek aurreneko aldiz. Ordua arte, abentura moduko bat izana zen hura. Handik aurrerakoak bertigo pixka bat eragiten zion. Batere hausnartu gabe burutua zuen dena, dida batean. Eta zegoeneko berandu zen damu izateko.

Arratsalde hartan berean, Aimarren begitarte tenkatuak ozenki salatzen zuen mutilaren urduria. Harriturik zegoen sentimendu-talka harekin. Batetik, gertatu behar zuena lehenbailehen gertatzea nahi zuen. Bestegik, tarteka

barrena ausikitzen zion zimikoak erabat aztoratzen zuen. Azkenean hasperen luzea egin zuen Mateo ondoko ikasgelan lasai-lasai sartzen ikusi zuenean.

Ettxera joateko orduan Maialenek mutila topatu zuen liburutegiaren parean. Ezinegona sumatu zion berehala:

-Ongi zaude, Aimar?

-Bai, oso ongi.

-Etxean ere dena ongi?

-Bai.

-Pozten naiz. Orain presaka nabil baina bihar goizean mintzatuko gara, ados?

Inoiz baino politagoa aurkitu zuen Aimarrek. Antza, eguerdian ileapaindegira joana zen eta han-hemenka poliki pausatutako makillajeak ere bisaiaren ederra nabarmentzen zion. Etxerako bidean, bere begietarako apaindua zela amestu zuen mutilak.

Hurrengo goizean sekulako laino sarriak irentsita ernatu zen hiria. Ilea lainoak bustita eseri zen Aimar ikasgelako aulkian. Bederatziak jota bazeuden ere, matematika-irakaslea ez zen bertan agertzen.

Sentsazioak arrapaladan pilatu zitzaizkion Aimarri eta izerdi-tantak kopetan behera erortzen hasi ere. Izugarri urduritu zen handik gutxira eskolako zuzendariaren aurpegi bizarduna gelako atean ikusi zuenenan.

Zuzendaria azkenean klasean sartu eta apunteak errepasatzeko agindu zien. Bost minuto joan gabe, ingeles-irakasle potoloak oihu egin zuen gelako atetik barnera, nabarmenki asaldatuta:

-Maialen ere ez da etorri!

Bat-batean inon diren goibel guztiak erori zitzaizkion gainera Aimarri, eta aurpegia bi eskuez estalirik, hitz bakar bat ezpainetaratatu zuen, inork ez erantzuteko moduan:

"Putá...!"

Sokamuturrak lotzen agudo ibili zen Aimar. Orrazkera berri hura, apaintze berezia... Bistan zen Mateorekin gaua emanda zegoela Maialen, eta antza, berarekin batera ere gosalduta. Halere, bere maitea mutilzahar gatzgabe

harekin egotea jasangaitza bazitzaion, jasanezina Maialen pozoitu izana eta horren ondorio arras ilunak.

Halako putzi itsu batera amildurik, ama zenaz oroitu zen. Hura bezalaxe, ustekabeen lainoak galbidera eramanik zegoen bera. Amesgaizto hartatik ateratzeko erregutu zion amari, mundu honetan bigarren aukerarik ez dela egoten ongi jakin arren.

Eskolako zuzendariak sakelako telefonoa hartu eta Mateoren telefono-zenbakia markatu zuen.

Halabeharra izan edo infinitutik bidalitako musua izan, kanpoko laino itsua urratu zuen lehenbiziko eguzki-printzak leihoko kristala igaro eta Aimarren masaila ferekatu zuen.

Orduantxe, Loreak ilea apaindu zuen. Amak egindako mermelada-hondarrekin pastel bat egina zuen eta gero, atsedenaaldian, Aimarri eman nahi zion opari. Larunbatean pizzeriara joateko gonbitearenkin batera, noski.

Une hartantxe ere, telefono-hotsak iratzarri zituen. Mateo hartzeko biratu zenean, bizkarrean ageri zituen mermelada-hondarrak -ilunantzeko jolasetan erabilia zeuden- emeki miazkatu zizkion Maialenek. Gorputza ederki astindu zuen gizonak telefonoa hartzerakoan ordua ikusi eta ernagailuaren alarma piztu gabe utzia zuela konturatu zenean.

Eta aldi bertsuan ere, Pinguinok zaporte gozo samarra nabaritu zuen boligrafoa ahoratutakoan. Batere garrantzirik eman gabe eta zuzendaria telefonoari emanda zegoela ikusita, klarionak txikitzeari lotu zen berriro.

Klarion-hauts huraxe bera baitzen kapsula gorrietan sartzen zuena, klaseko memelo inozoren bati noizbait ere garesti saltzeko esperantzan.